



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO UDALERRIAN ERREGIMEN BEREZIKO 3 ETXEBIZITZA TASATU ESLEITZEKO PROZEDURAN ONARTUAK IZAN DIRENEN BEHIN BETIKO ZERRENDAA.

-IÑAKI AZPIAZU KALEA 20 ETA 22 (2023TASB.....)-

Aurrekariak:

Alkatetzak 2023ko azaroaren 24ean emandako Ebazpenaren bidez Buztintzuriko Errebala 4an kokatzen diren erregimen orokorreko 2 udal etxebizitza tasatu eta heuren gehigarriak, eta Iñaki Azpiazu Kalea 20 eta 22an kokatzen diren erregimen bereziko 3 udal etxebizitza tasatu eta heuren gehigarriak esleitzeko oinarriak onartu zituen (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 235. zenbakia, 2023ko abenduaren 7koa).

Oinarrietako laugarren atalak, zozketan parte hartzeko eskabideak egiteko azken eguna 2024ko urtarrilaren 31a zela adierazi zuen (azken hori barne). Eskaerak egiteko epealdi horretan Iñaki Azpiazu Kalea 20 eta 22ko etxebizitza tasatuak esleitzeko prozeduran 81 eskaera aurkeztu ziren.

Alkatetzak 2024ko martxoaren 4an emandako Ebazpenaren bidez **Iñaki Azpiazu Kalea 20 eta 22an** kokatzen diren erregimen bereziko 3 udal etxebizitza tasatu eta heuren gehigarriak esleitzeko prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen behin behinako zerrendak onartu zituen, eta oinarriekin bat jendaurrean jarri ziren, 10 eguneko epea zabalduz edozein erreklamazio aurkezteko, bai baztertze arrazoen inguruan, edo baita aitortutako zozketan parte hartzeko zenbaki kopuruekin ados ez egoteagatik.

Denbora honetan bi erreklamazio aurkeztu dira:

1) 2024TASO0004 espedientearen titularrek erreklamazio bat egin dute, eta horren bidez jakinarazi dute ez daudela Iñaki Azpiazu Kalea, 20 eta 22ko etxebizitza tasatuak esleitzeko prozeduran. Udalari prozedura honetan onartuak izatea eskatu diote.

Egindako erreklamazioari erantzunez jakinarazi behar da titularrek eskaera egiterakoan ez zutela sustapen honetan parte hartzea eskatu. Erreklamazioaren bidez egindako eskaera denboraz kanpokoa litzateke, eta beraz, ezin da onartu.

2) 2024TASB0016 espedientearen titularrek erreklamazio bat egin dute, eta horren bidez jakinarazi dute 2022. urtean jasotako diru-sarrerak ez direla bakarrik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenak zehaztutakoak, zergarik gabeko errentak ere jaso dituztela. Idatziarekin batera jasotako zergarik gabeko errentaren frogagiriak aurkeztu dituzte.



Azpeitiko Udala

Udal-etxebizitza Tasatuak eta Prezio Itunduko Etxebizitza Libreak arautzeko Udal-Ordenantzaren (GAOn 2014/05/26an argitaratua) Aurreneko Azken Xedapenak arautzen du Babes Publiko Etxebizitzaren arloan indarrean den Erkidegoko araudia izango dela ezargarri 1. Tituluan aurreikusia ez dagoen guztirako. Eskatzaileek jasotako sarrerak zehazterakoan, beraz, Babes Publikoko Etxebizitzaren arloan indarrean den babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neuriei buruzkoa den martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak jasotako irizpideak izango dira aplikagarri, kontuan izanik udal-agintarauak ez duela alderdi hori arautzen.

39/2008 Dekretuaren 21. artikulua zergarik gabeko errentak ere aurreikusi ditu kontuan hartu beharrezko diru-sarreraren artean. Bere aldetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak errenta horiek zein diren zehazten ditu, eta horiek bat datozke erreklamatzailerak egiaztatutakoekin. Horregatik egindako erreklamazioa onartu egingo da.

Nolanahi ere, erreklamazio honek 2023TASB0028 eta 2024TASB0008 espedientei eragiten die eta horrela egiaztatu du Udalak. Hori horrela, titular hauek ere onartuak izango dira. Titularrek zergarik gabeko errentaren jatorria egiaztatu dute, modu berean.

Oinarrien 7. artikulua arabera Udalak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak etxebizitzaren zerrendarekin batera argitaratuko ditu orain arteko bideak erabiliz. Modu berean, onartuak izan diren parte-hartzaileei zozketaren eguna, ordua eta lekua, eta bertan parte hartzeko zenbakiak jakinaraziko zaizkie.

Eskumenari dagokionez, Toki Administrazioaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21. artikulua dioena ikusita (apirilaren 2ko 7/1985 Legea), **NAGORE ALKORTA ELORZA** alkateak **ERABAKI DU**:

1.- 2024TASO0004 eta 2024TASB0016 espediente-titularrek egindako erreklamazioak erantzutea azalpen atalean jaso den moduan.

2.- Iñaki Azpiazu Kalea, 20 eta 22an kokatzen diren erregimen bereziko 3 udal etxebizitza tasatu eta heuren gehigarriak esleitzeko prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen behin betiko zerrendak onartzea. Zerrenda horiek eranskin moduan jaso dira.

Eranskin 1: ONARTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA.

Eranskin 2: BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA.

2.- Dagokigun erabakia, eta onartuak eta baztertuak izan direnen behin betiko zerrendak Udalaren Iragarki taulan, Udalaren web orrian eta Azpeitia Berritzen S.A. ren atalean argitaratuko dira. Horrez gain, honako informazioa ere argitaratuko da:

1.- Etxebizitzaren ezaugarriak.

2.- Zozketaren eguna, ordua eta lekua: Zozketa 2024ko maiatzaren 8an ospatuko da, Azpeitiko Azoka Plazako artoan, arratsaldeko 18:00etan.

3.- Erabaki honen aurka, administrazio errekurtsioa aurkez dezakete interesatuek zuzenean



Azpeitiko Udala

Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegian. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, argitalpena egin eta biharamunetik hasita. Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtoa aurkezteko alkate honi hilabeteko epean.

Azpeitia, 2024ko apirilaren 11a.

